



HEZKUNTZA GUNEA

GOLEM GELA

golem

ZINEMAREN BIDEZ HEZI nahi du, irakasteko eta ikasteko bide gisa eta herritar
KULTUAK eta KRITIKOAK trebatzen laguntzeko.





SARRERA

HEZKUNTZA GUNEAk kezka bat du oinarri: **gazteak zinema-aretoetara erakartzea, ikus-entzunezko edukiak ikustera eta gozatzera gonbidatzea.** Arte- eta kultura-jarduera edo aisia- eta entretenimendu-ekintza gisa, zinemak **planetako txoko eta etnia guztietako pertsonaien istorioak eta historiak izaten ditu kontagai,** eta hurbileko eta ez hain hurbileko gertaeren berri ematen ditu bidendar, **munduaren leiho pribilegiatua** izanik.

Horregatik, ziur gaude **zinema ahalmen handiko ikaskuntza-tresna** izan daitekeela bigarren hezkuntzan, batxilergoan eta lanbide-heziketan, eta ikus-entzunezkoak baliabide indartsua direla aro digitalean jaio-tako gazteetatik **herritar kritikoak sortzeko.** Izan ere, informazioa eskuratu eta erabiltzeko, premiazkoa da heziketa egokia, gaur inoiz baino gehiago.

Era berean, ikaskuntza honek badu beste xede bat ere: zinema-aretoetan 90 minutuko film luzeak ikusteko behar den **arreta- eta kontzentrazio-gaitasuna berreskuratzea**, eta gure ikasleei **ikasgelatik atera eta zinemaren magia** ezagutzeko eta gozatzeko parada ematea, telebistaz, ordenagailuaz edo mugikorraz bestelako kultura-, arte-, eta aisia-aukera eta esperientzia gisa.

Ez dugu ahaztu behar **ikus-entzunezko hizkuntza** funtsezkoa dela egungo gazteentzat, hartan murgilduta bizi direlako. Hori dela eta, zinema irakatsi eta ikasteko osagarri gisa erabiltzeak edukiak hobeto barneratzen lagundu diezaieke. Gainera, **pantaila handian** ikusitako obrek beste era batean irauten dute memorian txertatuta. Plataformen bidezko ikus-entzunezko edukien gehiegizko kontsumoa dela eta —azken urteotan neurrigabe areagotua— erabili eta botatzeko kulturari ari gara erortzen. Zinemak gutxieneko arreta-maila eskatzen dio ikusleari, **pantaila handiak eta areto ilunak** liluratu egiten gaituzte. Zinemara joate hutsa ikuskizuna da berez, telebistari begira egotearekin alderatu ezin den esperientzia zirrargarri bat.

Azkenik, film guztiak jatorrizko bertsioan eskaintzea da asmoa, **hizkuntzak ikastea** eta **azpituludun filmak** ikustea sustatze aldera.

ASMOA

- **Gazteak zinemara:** DBHko, Batxilergoko eta LHko ikasleak film luzeak ikustera joatera bultzatzea, GOLEM zinemetako goizeko emanaldietara.
- **Hezkuntza-ekintzak:** zinemako pantaila handian ikusitako film luzeen inguruan prestatutako hezkuntza-ekintzak eskaintzea, bai DBHn eta Batxilergoan ematen diren irakasgaiei buruzkoak, bai adin-tarte horretako gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruzkoak.
- **Film egokiak:** adin-tarte, curriculum eta hezkuntza-balio bakoitzerako aproposak diren filmak eskaintzea.
- **Unitate didaktikoak:** ahal dela, film bakoitzerako berriaz prestatutako unitate didaktikoak eskaintzea.
- **Jarduerak:** proiektzioaren aurretik eta ondotik burutzeko prestatutako jarduerak egitea.
- **Ebaluazioa:** jarduera eta ikaskuntza-prozesua ebaluatzea.

NORI ZUZENDUA

Kulturarekiko interesa duten irakasleei, zinemaren baliabidea ikasgelatik kanpoko hezkuntza-tresna gisa baliatuz ikaskuntza-prozesuak berritu eta publiko berriak eta kritikoak sortzen lagundu nahi dutenei bereziki.

DATAK

Ikasturte osoan zehar, ikastetxeen beharren arabera egokitutako egunetan, baina ahal dela lehen eta bigarren hiru hilekoen barruan (2024ko urritik 2025ko ekainara), **goizeko emanaldietan** betiere.

MATERIAL DIDAKTIKOA

Bai (ahal den guztietan).

ANTOLATZAILEA

GOLEM

PREZIOA

5 €

GUTXIENEKOA

50 parte-hartzaile

HELBURUAK

Zinema hezkuntzarako eta irakatsi eta ikasteko tresna gisa **erabiltzea**.

Ikasleei ikus-entzunezko lanak kritikoki ikusteko **prestakuntza ematea**, lanok baloratzeko, aztertze eta eztabaidatzeko gai izan daitezen.

Lan parte-hartzailea eta eztabaida **sustatzea** ikasgelan, beste kultura batzuen eta gaurkotasuneko gaien inguruan.

Ikasleen prestakuntza **osatzea**: zinemaren bidez historiako, arteko eta literaturako pertsonaiak, garaiak eta gertaerak ezagutaraztea.

Gizalegezko balioetan **heztea**: espazio publikoetan portaera egokia izatea eta kultura-aniztasuna gizartearen aberastasun gisa onartzea.

Hizkuntzen ikaskuntza **sustatzea**, gaztelaniazko azpitoludun filmak eskainiz.

EDUKIAK

“DE CINE CON LA HISTORIA” ZIKLOA ESKARIPEKO POIEKZIOA GOLEM EUSKARAZ

ETA GAINERA

- Alice Guy: *“La pionera”*.
- Memoria duten irudiak ikus-entzunezkoen VII. Topaketa.
- Film bat nola egin.



"DE CINE CON LA HISTORIA" ZIKLOA

NOIZ

2024ko urria - 2025ko ekaina.

IKASGAIA

Gaur Egungo Munduaren Historia (Batxiler-goko 1. maila).

INTERESEKO GAIAK

Historia, errefuxiatuak, gerra, diktadurak, kazetaritza, kolonialismoa.

SINOPSISIA

Zer hobeto Historia ikasteko hura barrutik bizitzea baino, film bikainak pantaila handian ikusiz. Inork ez du ahaztuko zer den Ilustrazioa UN ASUNTO REAL (BENETAKO GAI BAT) ikusi ondoren. Era berean, inor ez du hotz utziko Chaplinen TIEMPOS MODERNOS (GARAI MODERNOAK) edo EL GRAN DICTADOR (DIKTADORE HANDIA) maisulanetako kritika politiko eta sozial zorrotzak. Ez dago historia klase hoberik MAYO DE 1940 (1940KO MAIATZA) filmean naziengandik ihesi ibiltzea baino, edo INFORME AUSCHWITZ filmean (AUSCHWITZ TXOSTENA) jasotako gerra-krimenen lekuko izatea baino. Zorioneko ikasle-ikusle horiek hainbat heroi ezagutuko dituzte, hala nola Ryszard Kapuscinski, zeinak bokazioak piztuko baititu, edo, besterik gabe, gazteen mundu ikuskera aldatu.

De CINE con la HISTORIA

CURSO 23/24 1º BACHILLERATO HUMANIDADES Y CIENCIAS SOCIALES - HISTORIA DEL MUNDO CONTEMPORÁNEO

SEPTIEMBRE UN ASUNTO REAL ANTIGUO RÉGIMEN	NOVIEMBRE Charlie CHAPLIN MODERN TIMES REVOLUCIÓN INDUSTRIAL	NOVIEMBRE 1917 I GUERRA MUNDIAL	FEBRERO Charles Chaplin EL GRAN DICTADOR TOTALITARISMOS
MARZO MAYO 1940 SEGUNDA GUERRA MUNDIAL	MARZO INFORME AUSCHWITZ SEGUNDA GUERRA MUNDIAL	MAYO EL PUENTE DE LOS ESPÍAS GUERRA FRIA	JUNIO UN DÍA MÁS CON VIDA MULTIDISCIPLINAR

4.50€ CONTACTO info@golem.es Tel.: 948 17 41 41
golem baiona

HILAK	MENDEA	TEMARIO	PELÍCULA
Iraila	XVIII	Antzinako Erregimena. XVIII. mendearen ezaugarri nagusiak	UN ASUNTO REAL (143') Nikolaj Arcel
Iraila-Urria	XIX	Frantziako Iraultza eta iraultza liberalak. Italiaren eta Alemaniaren bateratze-prozesuak	
Urria	XIX	Lehen Industria Iraultza	
Azaroa	XIX	Bigarren Industria Iraultza eta inperialismoa	TIEMPOS MODERNOS (97') Charles Chaplin
Abendua	XIX	Gizarte aldaketak. Langile-ideologiak eta langile-mugimendua	
Abendua	XX	Lehen Mundu Gerra (1914-18)	1917 (117') Sam Mendes
Urtarrila	XX	1917ko Errusiar Iraultza	
Otsaila	XX	Gerra arteko garaia: Happy Twenty eta Depresio Handia	
Otsaila	XX	Totalitarismoen gorakada	EL GRAN DICTADOR (128') Charles Chaplin
Martxoa	XX	Bigarren Mundu Gerra (1939-45)	MAYO DE 1940 (114') Christian Carion EL INFORME AUSCHWITZ (94') Peter Bebjak
Maiatza	XX	Gerra hotza. Berlingo blokeoa. Korea. Txina, Vietnam. Iraultzak: Kuba, Iran, Nikaragua. Espioitza. Misilen krisia. Deskolonizazioa. Berlingo harresiaren erorketa. SESBren desintegrazioa	EL PUENTE DE LOS ESPÍAS (135') Steven Spielberg
Maiatza	XX	Egungo mundua	TIMBUKTU (97') Abderrahmane Sissako
Ekaina	XX	Kapuscinskiren obraren egokitzapena, animazioa eta dokumentala konbinatuz	UN DÍA MÁS CON VIDA (86') Raúl de la Fuente eta Damian Nenow

ESKARIPEKO POIEKZIOA



ZER

Adin eta gai desberdinetarako material didaktikoz hornitutako filmak proiektatzeko aukera. GOLEM DISTRIBUCIÓN-en tituluak (ikus Golem Bildumak).

NOIZ

Eskaripeko emanaldiak, urria eta ekaina bitartean.

IKASGAIK

Tutoretza, Zeharkako gaia, Departamentuen arteko proiektuak.

INTERESEKO GAIK

Ekologia, ingurugiroa, zientzia, politika, gerra, pandemia, drogaletasuna, adiskidetasuna, etab.



GOLEM BILDUMAK

ZER

GOLEM DISTRIBUCIÓNen 16 proposamen, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat interresgarriak diren gaiak lantzeko. Ikusi bildumak erantsitako dokumentuan.

NOIZ

Eskaripeko emanaldiak, goizez beti, urria eta ekaina bitartean.

BILDUMAK

- ANIMAZIOA
- ARTEA
- ZINEMA ETA GAZTERIA
- GIZA ESKUBIDEAK
- GERRA ETA BAKEA
- LGTIBQ+
- LITERATURA
- MIGRAZIOAK
- EMAKUMEA
- OSASUN MENTALA
- GENERO-INDARKERIA
- INGURUMENA
- EKIALDE ERTAINE
- INGELESA FRANTSESA ALEMANA JBA



IKASGAIK

Filosofia, Gizalegezko balioetan eta balio etikoetan oinarritutako hezkuntza, Historia, Tutoretza, Geografia, Hezkuntza-arreta.

INTERESEKO GAIK

Emakumea, Hezkidetzeta, Literatura, Errefuxiatuak, Giza eskubideak, Genero-indarkeria, Balioak, Osasun mentala, Gerra eta bakea, Zinema eta gazteria, LGTIBQ+

LA PIONERA

La historia desconocida de ALICE GUY-BLACHÉ

ALICE GUY: LA PIONERA



“LA PIONERA” DOKUMENTALA

(Pamela B. Green, 2018 102', VOSE)

Unitate didaktiko zabala, gaztelaniaz eta euskaraz eskuragarri.

NOIZ

Eskaripeko emanaldiak, urria eta ekaina bitartean.

SINOPSISIA


Zergatik ez dugu inoiz entzun **Alice Guy-Blaché** andrearen berri? Hona hemen lehen emakume zinegilearen, fikzioa zinemara eramaten aitzindari izan zenaren historia inoiz kontatu gabea. Dokumental itxurako omenaldi hau Cannes Classics sailean estreinatu zen, eta egungo zinemagile eta zuzendari ezagunenetako batzuen testigantzak biltzen ditu, hala nola **Martin Scorsese**rena.


IKASGAIAK

Ikus-entzunezkoen Kultura, Zinema eta Publizitatea, Tutoretza, Hezkuntza-laguntza, Hezkidetza Proiektua.

INTERESEKO GAIAK

Zinema, Emakumea.





GOLEM EUSKARAZ

ZER

D ereduko ikastetxeetarako filmak euskaraz.

IKASGAIK

Euskara, Artea, Literatura.

NOIZ

Eskaripeko emanaldiak, urria eta ekaina bitartean.

INTERESEKO GAIK

Lurra, sustraiak, matriarkatua, familia, gizartea, tradizioa, euskara, emakumea, adimen emozionala.

EGITARAUA

AMAMA

Asier Altuna
2015 / 103 min

Baserriak gure begien aurrean desagiten ari den mundu zahar bat, bizitzeko modu bat, jakinduria eta balio jakin batzuk irudikatzen ditu. Baserria familia du, mendeetan jasotako jakintzan erroak eginak dituen klan bat. Eta familia bi munduren arteko talka-gunea da, gurasoen eta seme-alaben arteko lokarria eteten den eremua. Mundu zaharraren eta berriaren arteko gatazka horrek **Tomasen** eta **Isabelen** hiru seme-alabei eragiten die. Eta bitartean, amona, denei begira.

HANDIA

Aitor Arregi
y Jon Garaño
2017 / 114 min

Lehen Karlistaldian borrokan ibili ondoren, **Martin** etxera itzuli da, eta harrituta ikusi du bere anaia txikia, **Joakin**, izugarri luzatu dela, ohikoa ez den eran luzatu ere. Mundu guztia Lurreko gizon handiena ikusteagatik ordaintzeko prest egongo delakoan, bi anaiak bidaia luze bati ekingo diote Europan zehar. Baina anbizioak, diruak eta ospeak betiko aldatuko dute familiaren patua. Benetako gertaeretan oinarritutako istorioa.

BLACK IS BELTZA

Fermín Muguruza
2018 / 87 min


1965eko urria. Iruñeko erraldoien konpartsa —sanferminetako irudi tipikoa dena— New Yorkeko Bosgarren Etorbidean desfilatzen gonbidatuta dago. Baina, azkenean, ezingo dira erraldoi guztiak irten: arraza-bereizkeria dela eta, Estatu Batuetako agintariek debekatu egin dute errege-erregina beltzen parte-hartzea.

IRATI

Paul Urkijo
2022 / 111 min

VIII. mendea. Kristautasuna Europan zehar zabaltzen ari da, eta sineste paganoak desagertzen. **Karlomagno**ren armadak eraso jo du Pirinioak zeharkatzean, eta inguruko buruzagiak laguntza eskatu dio antzinako jainkosa bati. Odol-itun baten bidez, buruzagiak etsaia garaitu du, bere bizitza trukean emanda. Baina hori baino lehen, aro berrian herria babestu eta gidatuko duela zin eginarazi dio **Eneko** semeari. Urte batzuk geroago, **Eneko** kristauak misio bat ezartzen dio bere buruari: aitaren gorpua (**Karlomagno**ren altxorren ondoan paganoen eran lurperatua) berreskuratzea. Baina horretarako, inguruko emakume pagano baten laguntza beharko du: **Iratire**na. Bi gazteak baso misteriotso batean sartuko dira. Han, «izena duen guztia bada».

golem EUSKARAZ



MEMORIA DUTEN IRUDIAK IKUS-ENTZUNEZKOEN VII. TOPAKETA



ZER

Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatutako Memoria duten irudiak ikus-entzunezkoen topaketaren helburua «hamarkadetan ezkutatuta egondako indarkeria frankistari buruzko ikuspegi kritikoan sakontzea da: hau da, arteetatik proiektatutako begirada kritiko bat eskaintzea —bai iraganera begira, bai orainera begira—; gaur egun, oraindik ere, ezinbestekoa eta saihestezina den begirada kritiko bat».

Memoria historikoari buruzko hainbat dokumental proiektatuko dira, eta aurkezpenak eta mahai-inguruak egingo dira.

<https://pazyconvivencia.navarra.es/es/imagenes-con-memoria>

Goizean, ikasleentzat prestatutako jarduera egingo da, eta, arratsaldean, publiko orokorarentzat prestatutakoa.

NOIZ

2025ko apirila.

PREZIOA

Doako jarduera, lekuak bete arte. Ikastetxeen kasuan, izena emateko ordenaren arabera beteko dira lekuak.

IKASGAIA

Historia, Filosofia, Gizalegezko balioetan eta balio etikoetan oinarritutako hezkuntza, Tutoretza, Hezkuntza-arreta, Ikus-entzunezko kultura, Zinema eta publizitatea.

INTERESEKO GAIAK

Historia, Memoria, Kultura.

FILM BAT NOLA EGIN



JULIO MAZARICOAREKIN

ZER

Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikasleei zuzendutako tailer honen helburua film labur bat egitearen esperientzia bizitzea da. Julio Mazaricok eskarmentu handia du prestakuntza-tailerrak ematen, zinema-zuzendari, ekoizle eta gidoilari gisa egina duen bide luzeari esker. Tailer parte-hartzaile bat izango da, eta hizkuntza zinematografikoaren printzipioak gidari hartuta bideratuko da. Tailerra hiruzpalau orduko lau saiotan egingo da: literatur gidoia, gidoi teknikoa, filmaketa eta postprodukzioa.

NOIZ

Aste Santu eta gabonetako oporrak.

NOLA

Jarri harremanetan GOLEM zinemekin.

golem

Avda. Bayona, 52 - 31008 PAMPLONA / IRUÑA
HARREMANETARAKO: Marta Artica - marta.a@golem.es - Tel.: 948174141

EUROPEAN
CINEMA
Create Europe 2024



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

golem

Avda. Bayona, 52 - 31008 PAMPLONA / IRUÑA
HARREMANETARAKO: Marta Artica - marta.a@golem.es - Tel.: 948174141